

Polaritate negatiboko osagaiak baiezko perpausetan

Juan Carlos Odriozola Pereira, Ainara Ondarra Artieda
Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Saila, UPV/EHU

Polaritatea giza lengoiaren fenomeno orokor bat da: hizkuntzetako osagai batzuek badute oro har sintaxi-arauen bidez ezin aurrean daitekeen sintaxi-portaera. Berez, polaritate positiboko edo negatiboko osagaiak deitu izan direnak sentikor dira hurrenez hurren perpausaren baiezko edo ezezko izaerarekin. Hala ere, ezaguna da era berean PPO eta PNO horiek ez dutela banaketa osagarria erakusten hizkuntza jakin baten gramatikan. Zehazkiago, deskribatu da PNO direlakoek beheranzko irakurketa delako bat eragiten dutela. Alegia, ezezkotasun horren besarkadura perpausaren bertan ageri ez diren osagai batzuetara ere iristen da. Euskarazko datuetan oinarrituta, beheranzko irakurketa hori era lexiko batera deskribatzen du lan honek: ezezkotasuna, perpausako osagaiaren hiponimo guztietara iristen da, hiponimoak perpausaren ageri ez badira ere. Areago, beheranzko irakurketa hori, predikatu mota desberdinen ezaugarri lexikoekin estuki lotuta azaltzen da, eta ez bakarrik ageriko ez daramaten perpausekin. Horrela, erakusten da nolakoak diren PNO direlako horiek azaldu daitezkeen baiezko perpausak.

GAKO-HITZAK: Polaritate negatiboko osagaiak · Beheranzko irakurketak.

Negative polarity items in affirmative clauses

Polarity is considered a phenomenon of human language in which some lexical items show a behavior that is not predictable by general syntactic rules. In fact, the so-called positive-polarity items and negative-polarity items are sensitive to whether a sentence is affirmative or negative. However, it is well known that both PPIs and NPIs do not show a complementary distribution in the grammar of a particular language, which is again an unexpected fact. More precisely, NPIs are described as downward-entailment items. I.e. they bear a negation wide scope over some other items in an overtly negative sentence. Using data from Basque, this paper defines this downward entailment lexically as having a (lexical) scope over all the hyponyms of the item in the sentence. Moreover, downward entailment is shown to be a phenomenon closely related to the lexical features of the predicate rather than to the overt negation. Therefore, it is shown that some Basque NPIs appear in a wide range of overtly affirmative sentences, which are described in some detail.

KEY WORDS: Negative Polarity Items · Downward entailments.

Jasotze-data: 2013-07-29. *Onartze-data:* 2014-08-08.

1. Sarrera

Hutsetik abiatu eta polaritateari sarrera bat emateko, badakigu gutxienez Ladusawen (1979) lanetik honako perpaus bikote bat azaldu dezakegula:

- (1) a Ez dugu inongo txoririk ere marraztu
b *Inongo txoririk ere marraztu dugu

(1a/b) bereizketan ez-gramatikaltasuna eragiten duten osagaiak polar deritze, eta *inongo* + izena + partitiboa/determinatzaile eza (*ere*) honen kasuan eta beste hainbaten kasuan ere esaten dugu polaritate negatiboko osagaiak osagaiak ditugula. Horrelako terminologia erabiltzen da hizkuntza guztietarako eta euskararako De Rijken (1972, 1996) eta Lakaren (1990) lanetatik aurrera.

Edonola, (1a/b) adibidean *inongo... (ere)*-k eragiten duen bereizketa ez dago sintaxi-arau orokorretan bilduta, edo bestela esanda, ezin aurrean daiteke euskararen joskera-arau orokorretatik. Alegia, sintaxi hutsean *-ko* postposizio-sintagma daramaten euskal osagaiak adibidez, baiezko (2a) zein ezezko (2b) perpausetan azaltzen dira eragozpenik gabe:

- (2) a Ez ditugu basoko txoriak marraztu
b Basoko txoriak marraztu ditugu

Dena dela, denetariko hizkuntzak jorratu dituzten hizkuntzalari guztiak ongi ohartu dira polaritate negatiboko osagaiak deskribatzeko unean, haien agerpena zerk zilegitzen duen deskribatu behar dela, eta areago, zilegitzaileak ez direla bakar-bakarrik ez ageri bat daramaten perpausak. Alegia, PNOak zilegitzen dituen testuinguru bakarrak ez dira ezezko perpausak. Horrela, euskal hizkuntza aztertu dutenen arabera (De Rijk, 1972, 1996; Ortiz de Urbina, 2003: §4.5.4.1), horrelako osagaiak berdin-berdin azaldu daitezke besteak beste bai/ez galderetan, galdera erretorikoetan, baldintzapenen protasietan, *baino lehen* perpausetan, eta baiezko perpausen mendeko perpaus batzuetan. Oso azpimarratzekoa da gramatika partikularrak, hau da, hizkuntza bakoitzaren berezitasunak alde batera utzita badirudiela PNOek antzera jokatzeko dutela bestelako hizkuntzetan ere. Ikus bitez adibidez Lahiri (1998) hindierarako eta Laka (1990) bera ere beste hizkuntza batzuetarako

Polaritate positiboko osagaiak, hau da baiezko perpausetan bakarrik azaltzen diren osagaiak ere baditugu:

- (3) a Gehienez ere bi txori marraztuko ditugu
b *Ez ditugu gehienez ere bi txori marraztuko

Berriz ere, berehala ikusiko dugu (3)koa ezin dela sintaxi-arau orokorretatik ondorioztatu: -z daramaten postposizio-sintagmak baiezko zein ezezko perpausetan azaltzen dira eragozpenik gabe. Aurrerantzean, lan honetan zehar, komatxo soilen artean jarriko dugu aurreposizio deitura bidez adierazi nahi duguna.

- (4) a Erraztasunez, bi txori marraztuko ditugu
 'Zaila izango da txori gehiago marraztea'
- b Ez ditugu erraztasunez bi txori marraztuko
 'Zailtasun handiak izango ditugu bi txori marrazteko'

(2) eta (3)koari erreparatuta, bistan da *inongo... (ere)* bezalako osagaiak, hau da, PNOek, bai eta *gehienez ere* bezalakoek, hau da, PPOek, deskripzio propioa behar dutela. Guk geuk, *inongo... (ere)* jorratuko dugu lan honetan. Aurrerantzean *inongo* modura aipatuko dugu osagai hau. Edonola, irakurleak gogoan izan beharko du hurrengo hauek jokatzen dutela *inongo* + izena + partitiboa/determinatzaile eza (*ere*) egitura honen antzera: 1) izena laguntzen ez duten *inon*, *inoiz*, *inora*, *ezer* (Laka, 1990; Ortiz de Urbina, 2003: §4.5.4.1), 2) *inoizko*, *inolako* eta *inorako* eta 3) izen soilak hartzen duen partitibo determinatzailea ere (De Rijk, 1972, 1996; Ortiz de Urbina, 2003: §4.5.4.4). Alegia, lan hau behin eta berriz baliatuko da bestelako osagai horietaz esandakoaz, (gure hemengo helburu nagusia *ere* (aukeran) daraman zerbait aztertzea bada ere.

Ikusia dugu bada polaritatea ez dela hain erraz azaltzen bere osotasun horretan ('ezezkoetan baizik ez', 'baiezkoetan baizik ez'). Lehenengo eta behin, polaritatea duen osagai bakoitzak, baditu hizkuntza jakin batean bere ezaugarri lexiko propioak, besteak beste hizkuntza horren bilakaerari eta osagaiaren jatorri etimologikoari lotuta. Adibidez, *inongo (txoririk) ere* eta *inolako (txoririk) ere* bat datoz ezezko perpausetan azaltze horretan, hau da, esan daiteke bai polaritate negatiboko osagai direla eta bai antzerako esangura dutela. Hala ere, ageriko morfologia eta etimologia horiengatik besterik izango ez balitz ere, garbi dago «hiztegi-sarrera desberdinak» direla, eta espero izatekoa da izaera lexiko desberdina islatuko dutela hizkuntzaren maila batean edo bestean. Hots, hiztun arrunt modura ere, ondo jabetuta gaude bai *i-non-go* eta *i-nola-ko* jatorriko egiturez, bai horrekin batera jatorriz eta sakonean suma litezkeen «toki» eta «modu» zehaztapenez, bai eta agian *inongo* eta *inolako* hauek egungo euskaraz elkarrekiko azaltzen duten aldeaz: besterik izango ez balitz ere, berriz aipatu behar ditugu hurrenez hurren toki eta modu zehaztapenak, osagai hauek modifikatzen duten izenei eragingo dietenak. Beste adibide bat emateagatik, antzerako hausnarketak egingo genituzke *batere* osagai ihartuari buruz, hirugarren hiztegi-sarrera bat dela ezinbestez ondorioztatzeko (*Ez dugu batere txoririk marraztu* / **Batere txoririk marraztu dugu*): bistan da gutxienez *batere* osagaiak ez dakarrela ez toki, ez modu zehaztapenik. Alegia, hiru osagai hauek ez dira inola ere baliokideak, ezta maila lexikoan ere. Hizkuntzen arteko ikuspegi azalezko bat emateagatik, hindierak badu *ek bhii* osagaia (Lahiri, 1998), hitzez hitz 'bat ere' modura itzul daitekeena; hiztegi-sarrera horrek euskal osagaiaren antzera jokatzen du, baina jakina, hizkuntzaz hizkuntza jauzika gabiltzala, beste hiztegi-sarrera bat da, sintaxi zein lexiko mailan. Era errazean esanda, ustez «ezezkoetan baizik azaltzen ez diren osagaiak» eta ustez «baiezkoetan baizik azaltzen ez diren osagaiak» ez dira banaketa osagarri hutsean eta salbuespenik gabe azaltzen munduko giza hizkuntzetan zehar. Era teknikoago bat erabilita, sintaxi egiturak ez ditu azaltzen perpausako osagaiak elkarrekin dituzten zenbatze, besarkadura edota irakurketa harreman guztiak.

Nonbait lexikotzat jo genezakeen alderdi horretaz gain, lan honek ondo zedarriztatu nahi ditu «ezezko semantika» eta «ezezko sintaxia». Izan ere, *inongo* ageriko perpaus ezezkoetan ez ezik (5a), baiezko perpaus batzuetan ere (5b) azaltzen da:

- (5) a Ez dugu inongo txoririk ere marraztuko
b Nekez marraztuko dugu inongo txoririk ere
'Oso zaila izango da txoriak marraztea'

Zehazkiago, (5b)ko perpaus horrek ez du ezeztapenetan ereduazkoa den *ez* osagai, baina erraz esan dezakegu «ezezko semantika» edo «ezezko esangura» duela, (5a)koaren antzera. Hala ere, hankasartzerik egin gabe, ozen esan dezakegu *nekez* osagaiak ondo zilegitzen duela *inongo*.

Lan honen helburu nagusira hurbiltzen goazela, *nekez* bezalako osagaien azterketa ez da hemen hutsala izango. Izan ere, gure zereginak helburu murrizak ditu deskripzioan, baina badu bestetik fenomeno sorta oparoa azaldu lezakeen abiapuntuko hipotesia: bibliografiak esana du polaritatea daukaten osagaiak hainbat testuinguruk zilegituta daudela; zorrotzago, zenbatzaileen eta polaritadedun osagaien irakurketei eta besarkadurei erreparatu zaie, unibertsala bide den polaritate delako fenomeno honek hizkuntzetan zehar eta osagaietan zehar erakusten dituen parametro-aldakortasunak azaldu ahal izateko.

Guk geuk ikuspegi hauek guztiak irizpide bakar batera bildu nahi ditugu. Egia-aurreuposizioez mintzatuko gara, baina hori ozenki aldarrikatu baino lehen, esan beharko dugu guk geuk zeri esaten diogun egia-aurreuposizioa. Horretarako, geure egingo dugu Fasold eta Connor-Lintonek (2006) egindako liburuaren euskarazko itzulpenean azaldutakoa: «Hiztunak zein hitz hautatzen dituen ikusita zerbait ziurtzat jotzen duela agerian gelditzen denean gertatzen da aurreuposizioa». Horrela, liburu horretako euskal adibidera jota *Jon negarrez ari da berriz (ere)* perpausean, *Jon negarrez aritu da* jotzen du hiztunak egiazkotzat, eta *berriz (ere)* horretan sumatzen dugu entzuleok hori. Aurrerago ikusiko dugu *Jon ere negarrez ari da* perpausean, beste norbait negarrez ari dela sumatuko dugula *ere* osagaiaren erabileran.

Bigarren urrats batean, polaritate negatiboko osagaiak testuinguru jakin batzuek zilegitzen dituztela esan izan da. Lan honetan, azpimarratu egingo dugu hasiera batean behintzat begi bistakoa dena: testuinguru horiek bat etorri behar dute polaritate negatiboko osagaiarekin bere egia-aurreuposizioan. Alegia, testuinguru zilegitzailleek eta osagai zilegituek, tankera bereko egia-aurreuposizioak sortu beharko dituzte, batzuk besteekin elkartzen direnean. Horrela, abiapuntu gisa onartuko dugu *nekez* zein ezezko perpausek berdin jokatzen dutela *inongo* zilegitzen, batak zein besteak egia-aurreuposizio berberak dituztelako. Horren aldean, *erraz* bezalako osagaiak beste tankera bateko egia-aurreuposizioa gauzatuko dute, eta ez dira *inongo* osagaiarekin bateragarriak izango:

- (6) *Erraz marraztuko dugu inongo txoririk ere

Terminologiari gagozkiola, bere horretan utziko dugu *inongo* eta antzekoetarako PNO deitura. Izan ere, deitura horrekin jakitun egonda deskribatu dira osagai

honen zilegitzaile modura dagoeneko baiezko testuinguruak bai euskaraz (De Rijk, 1972, 1996; Ortiz de Urbina, 2003), baita bestelako hizkuntzetan (Lahiri, 1998). Bukatzeko, gure helburu goren modura hartuko dugu era objektibo batera deskribatutako *beheranzko irakurketa* dela testuinguru zilegitzaile hauen guztien gakoa. Horretarako, aurretik bibliografian euskararako deskribatuta dagoenaz harantzago joango gara euskal sintaxian. Izan ere, gure ikerkuntza ildo sendoki oinarritzen da lexiko-ikerkuntzan. Lehenik, berrikusteko daukagu beheranzko irakurketan zertan den hiperonimo/hiponimo harremanen ikuspegitik. Bigarrenik, lexikoan murgilduko gara berriz ere eta agerian utziko dugu polaritatearen inguruko egia-aurreuposizioak estuki lotuta daudela ez ezezkotasuna baina bai predikatuen mota lexikoekin.

Sarrera honetako gainontzeko azpiataletan, euskal bibliografiak esparru honetara ekarri duena berrikusiko dugu. Lehenik, polaritatedun euskal osagai batzuek eragiten dituzten egia-aurreuposizioak berrikusiko ditugu (→§1.1). Esan beharrekoa da bi kontu bereiziko ditugula lan honetan zehar: hauen aurreuposizioak, batetik, eta faktibo deitura hartzen duten predikatuak, bestetik. Gainera, azalezko begirada bat botako diogu polaritate-aldakortasunaren auziari (→§1.2).

Geroagoko atal bakar batean, bi ekarpen nagusi egingo ditugu euskararen eta giza hizkuntzen deskripzioan: hitz errazak erabilia, badira beheranzko irakurketa lortzeko eta *inongo* bezalakoak zilegitzeko ageriko ezeztapen-osagai bat behar duten testuinguruak (→§2.1), eta badira ageriko ezeztapenik gabe *inongo* bezalakoak onartzen dituztenak (→§2.2). Berez, ageriko ezezkotasuna baino zerbait zorrotzago aurkituko dugu tartean: perpausen lexiko- eta sintaxi-ezaugarriek zilegitzen duten egia-aurreuposizioa, guk lexiko mailan irudikatuko duguna, baina munduko hizkuntzetan zehar beheranzko irakurketa deitu izan dena.

1.1. Aurreuposizio motak

Aurreuposizioak, Fasold eta Connor-Lintonen (2006) adieran, sakon eta zabal aztertu dira. Lan honen ikerkuntza lerroak eman dituen emaitzetan, formalduak daude dagoeneko polaritateari lotuak dauden hainbat egia-aurreuposizio mota, oro har pragmatikan aztertu izan direnak eta bereziki emendiozko lokailuekin lotuta daudenak (→§1.1.1). Gure 2. saileko ekarpena bideratu ahal izateko, sarrera honetan beste egia-aurreuposizio mota batzuen berrikustapen laburra egingo dugu: predikatu motei lotutakoak, oro har sintaxian eta lexikoan aztertuak (→§1.1.2).

1.1.1. Polaritate motak eta emendiozko lokailuak

Egileon lan ildo hau ematen ari den bibliografi lanetan, gero eta azpimarratuago gelditzen ari da zeinen eragile garrantzitsua den *ere* osagaia, askotan aukerakoa izan arren, bai polaritate mota ugariaren ikuspegitik, bai eta emendiozko lokailuen zeregin ugariaren ikuspegitik. Izan ere, gure osagai honek uztartu egiten ditu polaritate eta emendiozko harreman oso ezberdinak eta ugariak, bestelako hizkuntzetan lokailu desberdin gehiagotara eta sintaxi anizkoitzagoetara jotzen bada ere. Edonola, esana dugu kontu guztiak egia-aurreuposizioen ikuspegi batetik biltzea dugula helburu beti ere.

Beste hizkuntzetako lan ildoekin bat eginez (Cuartero, 2002; Krifka, 1999; González, 2009: §5.2.2.2.1) eta nonbait euskal hizkuntzalariekin batera (Etxeberria eta Irurtzun, 2011), lan honetan ardatz hartuko ez dugun emendio harreman sorta ondo aztertuta dago jadanik (Ondarra, 2006; Ondarra, 2007a; Ondarra, 2007b; Odriozola eta Ondarra, 2010; Odriozola eta Ondarra, 2012): auresuposizio berezkoa/fokala (7), auresuposizio eskalarra (8), auresuposizio areagotzailea/esklusiboa (9) eta auresuposizio sasifokala (10).

(7) Txoriak ere marraztuko ditugu

‘X txoriak marraztuko dugu’

(8) Txoriak ere marraztuko genituzke

‘Txoriak marraztea izango litzateke zailena eta hori ere egingo genuke’

(9) Batez ere txoriak marraztuko ditugu

‘Bestelakorik gutxi’

(10) Gehienez ere txoriak marraztuko ditugu

‘Ez dakigu txoriak marraztuko ditugun’

Gure aztergai izango den inongo horri erreparatuta, honelakoak izango ditugu:

(11) *Inongo txoririk marraztuko dugu

(12) Ez dugu inongo txoririk marraztuko

‘Ez dugu enararik marraztuko’

(12)ko egia-auresuposizioa gutxienez Ladusawen (1979: §VI) lanetik deskribatuta dago, eta euskararentzat Odriozola eta Ondarra (2010) lanetik. Lakaren (1990) lanean ikus daiteke bestetik, euskararen datuetan oinarrituta polaritate negatiboari emandako teori babesa.

Hasieratik esan zen auresuposizio mota hau ez dagoela halabeharrez ezezko perpausei lotua. Hori dela eta, aurreratu dezakegu gure lanean aztergai izango den adibide bat. Odriozola eta Ondarra (2010) lan horretan, ereduzko fenomenoaren ulerkuntzari ekarpen bat egiten zaio lexikoaren ikuspegitik: beheranzko auresuposizioa esan izan zaio bertan egiten denari: *txoriei* buruz esaten dena, indarrean dago *enarei* begira jarrita ere. Alegia, hiperonimo bati buruz esaten denak bere hiponimoei ere eragiten die.

Zer esanik ez, nabarmen bereizten da testuinguru hori, beheranzkoak ez diren testuinguruetatik:

(13) Txori batzuk marraztuko ditugu

‘Enara batzuk marraztuko ditugu’

‘Ez dugu enararik marraztuko’

‘Animalia batzuk marraztuko ditugu’

Alegia, (13)koan, ez da jakintzat ematen perpausak txori izenaren hiponimoei eragiten dienik, eta berez, inongo euskaldunek ez luke egiazkotzat joko enararik marraztu den ala ez. Hortik dator lehenengo bi auresuposizioak ez gertatzea. Aurrerantzean, # ikurraren bidez adieraziko dugu jakintzat ematen ez den hori. Izan ere, goranzko auresuposizioa dugu bertan: txoriak marraztuko badira, beren hiperonimoak, hau da, animaliak marraztuko dira. Honelakoetan, goranzko irakurketa edota egia-auresuposizioa dugu, tartean animalia izena txori izenaren hiperonimoa delarik.

1.1.2. Predikatu motak eta mendekoen egia-auresuposizioak

Ez dago esan beharrik egia-auresuposizioak ez daudela bakar-bakarrik lokailuen eta antzerako osagai «periferikoen» mende. Hain zuzen ere, lan honen ekarpen nagusi modura ondorioztatuko dugu gure beheranzko irakurketa hori estuki lotuta doala hainbat predikatu motarekin ere. Polaritaterik urrun bada ere, luze-sakon aztertuta daude osagarri modura perpaus bat hartzen duten predikatuen inguruko egia-auresuposizioak, gutxienez Karttunen (1971a, 1971b, 1971c, 1973), Demonterren (1982: §2.3), Goenagaren (1985) eta Odriozolaren (1993: V) lanetatik aurrera. Gogora dezagun oraingoz ez garela «inplikazioaz» (Demonte, 1982: §2.2) mintzatuko.

Fasold eta Connor-Linton (2006) beti ere ikusmiran izanik, era erraz batean esan dezakegu hiztunak aukeratutako predikatu motan ikusten dela hiztunak zer ematen duen egiazkotzat, eta hala ematen duen hori, mendekoari berari lotua izango da. Har ditzagun *lor*tu eta *bideragarri*a predikatuak:

- (14) a Lortu dugu txoriak marraztea
'Txoriak marraztu ditugu'
- a' Ez dugu lortu txoriak marraztea
'Ez dugu txoririk marraztu'
- b Bideragarria izan da txoriak marraztea
'Txoriak marraztu ditugu'
- b' Ez da bideragarria izan txoriak marraztea
'Ez dugu txoririk marraztu'

Horrela bada, *lor*tu eta *bideragarri* predikatuetatik ondorioztatzen dugu hiztunak baiezeko perpausetan zer jotzen duen egiazkotzat. Tartean predikatu hauek daudelarik, onartuko dugu ezezeko perpausetan hiztunak gezurrezkoztat jotzen duela mendekoa, edota maila batean edo bestean ezeztatu egiten duela mendekoa, nahiz eta berez perpaus hori baiezekoa izan. Beste era batera esanda, egiazkotzat jotzen du mendekoa ez dela gertatu.

Esan beharrekoa da honelakoak aditzaren hainbat aldi gramatikaletan bakarrik gauzatzen direla argiro. Guk ereduazko adibide jakin batzuei eutsiko diegu, aditz bakoitzaren zehaztapen guztiak aztertzen hasi gabe. Odriozolak (1993: V) honelako sailkapena zirriboratu zuen euskararako:

1) Esan bezala, *lortu* bezalako aditzak baieztatzen edo ezeztatzen direnean, -*t(z)ea* mendekoa egiazkotzat edo gezurrezkoztat jotzen da hurrenez hurren.

2) *Saihestu* bezalako aditzek *lortu* bezalako alderantzizko eredua dute:

(15) a Saihestu dugu txoriak marraztea

'Ez dugu txoririk marraztu'

b Ez dugu saihestu txoriak marraztea

'Txoriak marraztu ditugu'

3) *Bultzatu* bezalakoetan, baieztatzen direnean baizik ez da egia-auresuposizioa (16a) eragiten:

(16) a Txoriak marraztera bultzatu gaituzte

'Txoriak marraztu ditugu'

b Ez gaituzte bultzatu txoriak marraztera

#'Txoriak marraztu ditugu'

'Ez dugu txoririk marraztu'

4) *Eragotzi* bezalakoetan, baieztatzen direnean baizik ez da gezur-auresuposizioa (13a) eragiten:

(17) a Eragotzi digute txoriak marraztea

'Ez dugu txoririk marraztu'

b Ez digute eragotzi txoriak marraztea

#'Txoriak marraztu ditugu'

#'Ez dugu txoririk marraztu'

5) *Aukera eman* bezalako kolokazioek (Altzibar eta Odriozola, 2013) eta bestelako predikatu bakunek, ezeztatzen direnean baizik ez dute gezur-auresuposizioa eragiten (aldi bukatugabeetan) (18b):

(18) a Aukera eman digute txoriak marrazteko

#'Txoriak marraztu ditugu'

#'Ez dugu txoririk marraztu'

b Ez digute aukerarik eman txoriak marrazteko

'Ez dugu txoririk marraztu'

6) *Esan* bezalakoek ezeztatzen direnean baizik ez dute egia-auresuposizioa eragiten: ikus bedi *-enik /-ela* bereizketa egiten duten hiztunek (19b)koan jakintzat ematen dutela txoriak marraztuko dituztela.

- (19) a Esan dugu txoriak marraztu ditugula
 ‘Txoriak marraztu ditugu’
 ‘Ez dugu txoririk marraztu’
- b Ez dugu esan txoriak marraztu ditugula
 ‘Txoriak marraztu ditugu’ [-*enik* / -*ela* bereizketa egiten den hizkeretan (EGLU-V: §1.3.4.)]
 ‘Oraindik ez dugu azaldu nahi zer egin dugun’ [(-*enik* / -*ela* bereizketa egiten ez den hizkeretan)]
- b’ Ez dugu esan txoriak marraztu ditugunik (-*enik* egiten den hizkeretan, jakina)
 ‘Txoriak marraztu ditugu’
 ‘Ez dugu txoririk marraztu’

Ikus bedi oraingo honetan (19ko) auresuposizio horiek benetan bideratu daitezkeela, eta horregatik ez dugula # ikurra erabili: gure ustez behintzat, *aukera eman digute* horretatik (18) ez da ezer ondorioztatzen, baina *esan dugu* horretatik ondorizta daiteke baiezkoa zein ezezkoa. Hala ere, gogoan izan bedi elkarrekin ondo uztartzen ez diren bi auresuposizio direla (19a) honetan.

Zirriborro honetatik berehala ondoriozta daiteke ezezkotasunaren (edo gezurrezkotzat jotzearen) inguruko guztiak zuzen eragingo diola gure aztergai den esparruari. Hala ere, ikustekoa daukagu (→§2.2.2) gezurra/egia bereizketa baino zerbait korapilatsuagoa dagoela tartean.

1.2. Azalezko begirada bat polaritate aldakorrari eta polaritate positiboari

Beste lan batean Odriozolak eta Ondarrak (2012) gogora ekarri izan dute polaritatea uste baino aldakorragoa dela beti *ere* azaltzen den esparru zabala ikusmiran izanik. Lehenengo eta behin, esan dezagun oraingo honetan ez garela arituko egia-auresuposizioez, baiezko/ezezko esaldiez baizik. Lan horretan, egile hauek agerian utzi dute unibertsala bide den aldakortasun gune bat: hainbat osagaiaren polaritatea predikatu mota jakin batzuei lotuta dago. Zehazkiago, *oraindik (ere)* osagaiaren antzera polaritate positiboa duten osagai batzuek predikatu telikoekin baizik ez dute polaritatea erakusten:

- (20) a Oraindik ere ez dugu txoria marraztu
 b *Oraindik ere txoria marraztu dugu

Alegia, (*txoria*) *marraztu* aditzaren telikotasuna da *oraindik (ere)* osagaiarekin polaritate elkarrekintza duena. Izan ere, *oraindik* osagaiak ez du polaritate negatiboko osagai modura jokatzeko *atsegin izan* bezalako aditz-esapide ezteliko batekin:

- (21) a Oraindik ere ez zaigu marrazki mota hori atsegin
 b Oraindik ere marrazki mota hori atsegin zaigu

(*Txoria*) *marraztu* / *atsegin izan* bereizketarekin batera, Odriozola eta Ondarra (2012) lanean agerian gelditzen da (*txoria*) *marraztu* (baiezkoa) / *atsegin izan* (ezezkoa) bereizketa ere desagertu egiten dela *gabe* (Odriozola, 2004) bezalako osagaiak direla bide:

(22) Oraindik ere *txoria* *marraztu* *gabe* daukagu

Alegia, *gabe* osagaiak «destelizatu» egiten du (*txoria*) *marraztu* aditzaren jatorrizko aspektu lexikoa, eta ondorioz gertatzen den testuingurua bateragarria da *oraindik (ere)* osagaiarekin. Beraz, berriz azpimarratzekoa da ageriko baiez-kotasun/ezezkotasun bereizketa izotz puskaren muturra baizik ez dela: *oraindik (ere)* osagaiak ondo irensten du eztezikotasun lexikoa zein sintaktikoa, ageriko baiezko zein ezezko perpausetan; bestetik, tartean aspektu lexiko telikoko predikatu bat dugunean, *oraindik (ere)* bateragarria da ageriko perpaus ezezkoekin, baina ez baiezkoekin.

Edonola, espero izatekoa zen zilegitze-testuinguruak aspektu ezaugarri jakin batzuetan oinarrituta egotea, azken batean polaritate positiboko osagai (aldakor) honek perpaus-egituraren maila altu batean eragiten diolako gertaerari nolabait.

Laburtuz bada, polaritatea aztertzen ari garelarik, hainbatetan ez dugu zertan auresuposiziorik bilatu, eta besterik *gabe* baieztatu/ezeztatzen dena har dezakegu aztergai, adibidez baieztapen/ezeztapen horiek zein aspektu motekin bateratu daitezkeen begiratzeko unean.

2. Beheranzko irakurketa gako

Esan bezala, *inongo* bezalako osagaien hasierako deskripzioa ondo moldatzen da polaritate negatiboaren ereduarekin:

- (23) a Ez dugu inongo txoririk ere *marraztu*
b *Inongo txoririk ere *marraztu* dugu

Badakigu era berean berehala suma daitekeela (23)ko eredia ez dela egia osoa, edota polaritate negatiboko osagai batek (23)koa baino zerbait korapilatsua-goa azaltzen duela. Esana dugu Lahirik (1998) zehatz deskribatua duela hindieraren osagai bat, ia hitzez hitz *batere* euskal osagaiaren baliokidea dena. Bere deskripzioan, osagai hori baiezko perpausetan erakutsi digu, hizkuntza horren hainbat sintaxi testuingurutan zehar. Hau dela eta, argi azpimarratu behar da hizkuntzetan zehar unibertuala izan litekeela polaritate negatiboko osagaiak baiezko perpaus jakin batzuetan agertzea, baina horretaz gain, badirudiela perpaus mota horiek parametro-aldakortasuna erakusten dutela hizkuntzetan zehar.

Horrela ba, badakigu euskararen deskripzioaren kontu orokor batzuk baliagarririk izango direla giza hizkuntzetako polaritatea ulertzeko, eta beraz, euskararen deskripzio hutsari eutsiko diogu, bai baitakigu sintaxi testuinguru zehatzak nabarmen alda daitezkeela hizkuntzaz hizkuntza.

Bestetik, Ladusawen (1979: VI) lanetik, badakigu ezeztapena dela beheranzko irakurketaren ikur ageriena (ikus era berean De Rijk 1972, 1996 euskal partitibo-

rako). Ladusawek berdin adierazi zuen badirela «ezkutuko ezeztapenak», besteak beste modaltasunezko zehaztapen batzuei lotuta. Horren harira, euskarara ekarriko dugu giza hizkuntzetan funtsezkoa den ideia hori: Polaritate negatiboko osagai deitu izan diren horiek beheranzko egia-aurreuposizio lexikoa bideratu dezakeen perpausa behar dute, dela agerian ezezko diren perpausetan, dela baiezko perpausetan. Bigarren kasu horretan egingo du lan honek bere ekarpen nagusia, agerian utziko baitugu beheranzko irakurketa nahiko sakonekoak diren ezaugarriei lotuta gerta daitezkeela. Alegia, baiezko perpaus horiek dagoeneko bibliografian zerrenda soil batean bilduta daudelarik, zerrenda hori zertan den begiratu beharko dugu hemen, eta areago, beheranzko irakurketa bada gakoa, beheranzko irakurketa hori noraino iristen den finkatzen saiatuko gara.

Sail mardul hau bi azpiataletan antolatuko dugu, oinarrizko abiapuntu batetik: lehenik ikustekoa dugu hainbat predikatuk ez dutela berez beheranzko irakurketarik ematen eta ageriko osagai ezezkoren bat behar dutela *inongo* osagaiarekin bateragarriak izateko. Errazago esanda, gogora ekarriko dugu *inongo* oro har zilegituta gertatzen dela edozein ezezko perpausetan (→§2.1); bestetik aztertzekoa dugu beste hainbat predikatuk berez ematen dutela beheranzko irakurketa eta horrela, ageriko osagai ezezkorik gabe ere bateragarriak direla *inongo* osagaiarekin (→§2.2).

2.1. Berezko irakurketa beheranzkoa ez duten predikatuak

Lan honetan bi mota bereiziko ditugu ageriko osagai ezezkoren artean: *ez* ereduzkoa (→§2.1.1), eta *ezin*, *gabe*, *aurka* edo *nekez* bezalako osagaiena (→§2.1.2).

2.1.1. Ez

Hemen ikustekoa daukagu perpausetan bertan ez ezik (→§2.1.1.1), perpaus nagusi bateko *ez* osagaiak ere *inongo* zilegitu dezakeela mendeko perpaus batean (→§2.1.1.2).

2.1.1.1. Ezezko perpausak

Azter dezagun apur batez polikiago behin eta berriz errepikatzen ari garen eredua. (24)koan, beheranzko irakurketa edo egia-aurreuposizioa gertatzen da: txoririk marraztu ez bada, txori mota bat den (alegia, hiponimo bat den) enara ere ez da marraztu.

(24) Ez dugu *inongo* txoririk ere marraztu

‘Ez dugu enararik marraztu’

Badakigu ordea, *inongo* hori oro har ez dela bateragarria baiezko perpausekin (25).

(25) **Inongo* txoririk ere marraztu dugu

Beraz, *marraztu* predikatuaren ezeztapena, bateragarria da *inongo* (*txoririk*) ere izen-sintagmarekin, baina ez predikatu honen baieztapenarekin. Ikus bedi orain beste hau:

(26) Txoriak/txori batzuk/bost txori marraztu ditugu

‘(Hizpide hartu ditugun) txorietako batzuk marraztu ditugu’

‘(Hizpide hartu ditugun) txori guztiak marraztu ditugu (baina ez zegoen enararik)’

Zer esanik ez, *marraztu* predikatua bateragarria da *inongo* ez daramaten baiezeko testuinguru batzuekin. Ikus bedi edonola (26)ko sortan ez dela beheranzko irakurketarik sortzen. Izan ere, (26)koak ez du halabeharrez egiazkotzat jotzen *txori* izenaren pean hizpide har ditzakegun izaki guztiak gelditzen direnik baiezta-penaren barruan: gerta daiteke bistan ditugun txori guzti-guztiak ez marraztea, eta berdin gerta daiteke bistan ditugun txori guztien artean, adibidez enararik ez egotea.

Horrela bada, euskal gramatikaren arau modura esan dezakegu ageriko perpaus ezezko guztiek zilegitzen dutela *inongo* osagai polarra, ez dutelako aukerarik ematen izenaren hiponimoak ezeztapenetik kanpo uzteko.

2.1.1.2. Ezezko perpaus nagusia eta beheranzko irakurketa

Ez osagaiak bere perpausetan ez ezik, perpaus horren mendeko batean ere zilegitu dezake *inongo*. Hori dela eta, uztartu egingo ditugu oraingo honetan osagarri modura perpaus bat hartzen duten predikatuen inguruko auresuposizioak (→§1.1.2) eta gure beheranzko irakurketa.

1) *Lortu* eta *saihestu* aditzek, mendekoaren egia dakarte baiezekoetan eta ezezkoetan hurrenez hurren. Ezezkoei gagozkiola bada, hauxe izango genuke (aurrerantzean, (a) eta (b) aldaerek, komatxoak daramatzatelarik, beheranzko auresuposizioa eta predikatu jakin bakoitzak daraman auresuposizioa adieraziko dute hurrenez hurren):

(27) Ez dugu inongo txoririk ere marraztea lortu

a Beheranzko egia-auresuposizioa (→§1.1.1)

‘Ez dugu lortu enararik marraztea’

b Predikatuaren egia-auresuposizio espezifikoa (→§1.1.2)

‘Ez dugu txoririk marraztu’

(28) Ez dugu inongo txoririk ere marraztea saihestu

a ‘Ez dugu saihestu enararik marraztea’

b ‘Txoriak marraztu ditugu’

Bibliografi berrikustapenean (→§1.1.2) ikusia dugu *lortu* aditzak mendekoa gezurrezkoetat jotzen duela ezezko perpausetan. *Saihestu* aditzak aldiz, baiezeko perpausetan jotzen du gezurrezkoetat mendekoa. Beraz, oso azpimarratzekoa da (28)koan, mendekoa berez egiazkotzat jotzen dela, eta batek pentsa lezake hori mendekoa baieztatzea dela, baina hala ere zilegi da *inongo* erabiltzea.

Hemen azpimarratzekoa da *inongo* zilegitzen duena ez dela *marraztea* ekintzaren egia ala gezurra. Izan ere, *lortu* ezeztatuta, marrazkien egia gezurtatzen da, baina *saihestu* ezeztatuta, egiaztatu egiten da marrazkien egia. Hala ere, bietan ematen da jakintzat predikatu honek bere argumentuen hiponimoei ere eragiten diela.

Saihestu bezalako aditzen eredu berekoak dira *ezinezko* bezalako predikatu modaltasunezkoak (Odriozola, 2012, 2013). Hala da aldi gramatikal bukatuetan behintzat:

(29) Ez da ezinezkoa izan inongo txoririk ere marraztea

- a 'Ez da ezinezkoa izan enararik marraztea'
- b 'Txoriak marraztu ditugu'

2) Ildo berean, ezezkoetan baizik eragina ez dutenek berdin jokatzten dute. Hala da *gai izan* (Odriozola eta Alzibar, 2013) bezalako predikatu konplexuen antzera, ezezkoetan mendekoa gezurrezkotzat jotzen dutenen kasuan:

(30) Ez gara inongo txoririk ere marrazteko gai izan

- a 'Ez gara inongo enara marrazteko gai izan'
- b 'Ez dugu inongo txoririk marraztu'

Eta hala jokatzten dute era berean, ezezkoan gezurrezkotzat jotzea eragiten dutenek: adibidez, *aukera eman* bezalako kolokazioek (Alzibar eta Odriozola, 2013).

(31) Ez digute aukeratik eman inongo txoririk ere marrazteko

- a 'Ez digute aukerarik eman enararik marrazteko'
- b 'Ez dugu txoririk marraztu'

Aukera bezalako izen hauek, eredu honi eusten diote edonolako aditzen menpe (32).

(32) Ez gara inongo animalia ere harrapatzeko aukeraz mintzatu

3) Tankera horretako auresuposizio eragina baiezkoetan baizik ez dutenek ere hala jokatzten dute ezezkoetan: *bultzatu* bezalako aditzek.

(33) Ez gaituzte bultzatu inongo txoririk ere marraztera

- a 'Ez gaituzte enararik marraztera bultzatu'
- b # 'Txoriak marraztu ditugu'
- b' # 'Ez dugu txoririk marraztu'

4) Predikatu mota jakin batzuek ez diote mendekoari egia-auresuposizio espezifikorik eragiten, baina beti ere, *inongo* zilegitzen dute ezeztatzen direnean: hala jokatzten dute *agindu*, *debekatu* eta *erabaki* adizki-predikatuek, edo *beharrezko* (Odriozola, 2012, 2013) eta *bidezko* edo *legezko* bezalako izenki-predikatu arruntek.

Ezezko predikatuari dagokionez, gauza bera esan daiteke *zilegi izan*, *nahi izan* edo *behar izan* bezalako adizki-predikatu konplexuez (Odriozola eta Alzibar, 2013) eta *garaia izan* bezalako izenki-predikatuez.

5) Antzera jokatzten dute syntaxian urrun egon arren, bestelako mendeko mota batzuk aukeratzen dituzten adizki predikatu batzuek: *jakin* bezalakoek eta *galdetu* bezalakoek.

- (35) Ez dakit inongo txoririk ere marraztuko dugun
- a 'Ez dakit inongo enararik marraztuko dugun'
 - b 'Ez dugu txoririk marraztuko'
 - b' 'Enara batzuk marraztuko ditugu'

6) Demontek (1982: §2.2, §2.3) gaztelaniarako, eta Goenagak (1985) eta Odriozolak (1993: §V) euskararako, aurrean aipatutako aditz guztietatik aparteko sail bat gauzatu zuten. Alde batera utzita garai hartako terminologia, egun esango dugu *loritu* eta aurrean aipaturiko beste aditz horiek egia/gezurra aurreuposizio bat daramatela, baiezko edo ezezkotasunari nolabait lotuta. Izan ere, aurreuposizioez mintzatu gara beti ere lan honetan zehar orain arte. Badaude ordea, edozein sintaxi testuingurutan mendekoaren egia aurreuposatzen dutenak. Honelakoei predikatu faktibo esaten zaie. Horrela, euskal autoreek *poztu* bezalako adizki-predikatuak eta *triste* bezalako izenki-predikatuak aipatu dituzte, beti ere *-tzea* daramaten perpausak nolabaiteko emotibitateari lotuta: aldi bukatuetan behintzat predikatu hauek mendekoaren egia aurreuposatzen dute baiezko zein ezezko perpausetan:

- (36) Poztu egin gaitu txoriak marraztu izanak
- a #Enarak marraztu ditugu
 - b 'Txoriak marraztu ditugu'
- (37) Ez gaitu poztu inongo txoririk ere marraztu izanak
- a 'Ez gaitu poztu enarak marraztu izanak'
 - b 'Txoriak marraztu ditugu'

Berriz azpimarratzekoa da beraz *poztu* bezalako aditz faktiboek beti ematen dutela egiazkotzat beren mendekoa (37b, 38b), baina aditz gehienek bezala, ezezkoetan baizik ez dutela beheranzko irakurketa (38a) eragiten.

2.1.2. Beste ageriko osagai ezezko batzuk perpausean bertan

Egia esan, euskal joskerari begirada orokor bat egin beharko litzaioke benetan *inongo* zilegitzen duten testuinguru guztiak bildu ahal izateko. Ez da lan hau testuinguru bakoitza zehaztapenez deskribatzeko tokia, baina azalezko aipu bana eskainiko diogu hainbat konturi:

1) Lehenengo eta behin, saihestezina da *ezin* aipatu beharra: *ez* osagaiaren pare-parekoa da sintaxi kontu askotan ez ezik, nonbait bere jatorri morfologikoaren ikuspegitik ere:

- (38) Ezin dugu marraztu inongo txoririk
- 'Ezin dugu marraztu enararik'

2) Oso bestelakoa da *gabe* postposizioaren kontua (Odriozola, 2004), bai eta *aurka* postposizioaren kontua ere:

- (39) a Inongo txoririk gabe gelditu zen
- b Inongo txoririk marraztu gabe gelditu zen

(40) Inongo txoririk hiltzearen aurka zegoen

Hemen erraz ikus daiteke postposizio-sintagma baten barruko zilegitzeaz ari garela: *inongo* zilegitua da *gabe* edo *aurka* osagaiak eraturako egitura baten barruan. Egitura hori, postposizio-sintagma (39a) zein mendeko perpausa (39b, 40) izan daiteke.

2.2. Beheranzko irakurketa berezkoa duten testuinguruak

Onartuko dugu perpaus mailako zilegitzaile bat dutenek berezko irakurketa beheranzkoa dutela. Edonola, baiezkoan mendekoaren gezurra dakarten predikatuak aztertuko ditugu lehen (→§2.2.1). Horren ostean, jarraituko dugu perpaus elkartuak aztertzen, baina oso joskera desberdineko esparruan: modifikatzaile modura jokatzeko duten perpausak aztertuko ditugu (→§2.2.2). Geroago, galderak ikusiko ditugu (→§2.2.3). Bukatzeko, perpausetik beherako mailan bilatuko ditugu *inongo* osagaiaren zilegitzaileak (→§2.2.4).

2.2.1. Berezko irakurketako predikatuak

1) Ikusia dugu *lortu* bezalako aditzek eta beste predikatu sorta zabal batek *inongo* zilegitzen dutela perpaus nagusia ezezkoa denean. Hemen berrestekoa da aipatu predikatu horiek *saihestu*, bezalakoekin erakusten duten aldea. Honelakoa da behintzat lan honen egileen hizkuntz senak adierazten duena:

(41) a *Lortu dugu inongo txoririk ere marraztea

b Ez dugu lortu inongo txoririk marraztea

(42) Saihestu dugu inongo txoririk ere marraztea

a 'Ez dugu enararik marraztu'

b 'Ez dugu txoririk marraztu'

(43) Ez dugu saihestu inongo txoririk marraztea

a Enarak marraztu ditugu

b Txoriak marraztu ditugu

Alegia, baiezkoan mendekoaren egia eragiten dutenek ez dute *inongo* zilegitzen, edo zilegitzekotan, ondorio eskasagoak ematen dituzte (41a), baiezkoan mendekoaren gezurra eragiten dutenek (42a) baino.

2) Izan ere, ikusia dugu (→§1.1.2, §2.1.1.2) *saihestu* bezalako aditzek, mendekoaren gezurra edo ezeztapena dakartela baiezko perpausetan (ezezkoetan mendekoaren egia eragiten dutelarik). *Eragotzi* bezalakoek baiezkoan baizik ez dute gezur-aurreuposizioa eragiten, eta *inongo* zilegitzen dute, horrelakoetan *saihestu* bezalakoekin bat eginez:

(44) Eragotzi digute inongo txoririk ere marraztea

a 'Ez dugu enararik marraztu'

b 'Ez dugu txoririk marraztu'

3) *Lortu* aditzak ez ezik, baiezkoan inongo eraginik sortzen ez dutenek ere ez dute *inongo* zilegitzen. Izan ere, baiezkoan, ondorio bitxiak ematen dituzte, ezezkoan baizik gezurra ez dakartenek (45a). Eta baiezkoan berdin jokatzeko dute ezezkoan baizik egia ez dakartenak (46b).

- (45) a *Aukera eman digute inongo txoririk ere marrazteko
b *Esan diegu inongo txoririk ere marraztuko dugula

Zaila bezalako izenki-predikatuek ez dute egia-auresuposizio espezifikorik eragiten, baina ezartzen diote, bai, mendekoari beheranzko auresuposizioa:

- (46) *Zaila* da inongo txoririk ere marraztea
'*Zaila* da enarak marraztea'

Lan honen helburuetatik kanpo dago *gezurtatu* edo *ukatu* bezalako hizketa-aditzen auresuposizioen azterketa zehatza, baina edonola esan dezagun honelakoek ondo zilegitzen dutela *inongo* baiezko perpausetan ere. *Baieztatu*, *egiaztatu* bezalako hizketa-aditzekin gertatzen den aldea behintzat nabaria da:

- (47) *Gezurtatu* dugu inongo txoririk ere marraztu dugunik
(48) **Baieztatu* dugu inongo txoririk ere marraztu dugunik

Horrela ba, lan honen egileon senaren arabera, mendeko perpausetan *inongo* zilegituta dago baldin eta perpaus nagusiak mendekoa gezurrezkotzat jotzen badu, bai eta mendekoaren egiari eragiten ez dioten kasu batzuetan ere.

Bistan da aurreko perpausetako batzuk bitxi ikusten dituen sen hori dela orain azaldu beharko litzatekeena. Alegia, zergatik dira *inongo* daramatenak eskasagoak baiezkoan, baldin eta egiazkotzat jotzen badira, edo baldin eta ez badago egia/gezurra auresuposiziorik?

Hona gure hipotesia: *inongo* ezin zilegitu daiteke baiezko perpaus nagusien barruan, baldin eta mendeko perpausa egiazkotzat jo badaiteke edo jotzen bada (49). Mendekoa gezurrezkotzat jotzen bada, *inongo* zilegitua gertatzen da (50).

- (49) **Lortu* dugu inongo txoririk marraztea
(50) *Saihestu* dugu inongo txoririk ere marraztea

Finkatua dugu bada *inongo* osagaiaren testuingurua beheranzko irakurketan oinarritua. Har dezagun hizpide orain aipatutako bibliografian fenomeno berberari eman zaion beste ikuspegi bat, zenbatzaile kategoriako osagaien irakurketetan oinarritua.

Une batean *inongo* alde batera utzita, erantsi diezaiozun *txori* izenari batetik *-a* mugatzailea, eta bestetik *-k* zenbaki-marka. Ikus ditzagun ondorioak lehenago *lortu* aditzaren mende:

- (51) *Lortu* dugu txoriak marraztea
a # 'Enarak marraztu ditugu'
a' 'Hizpide genituen txori guztiak marraztu ditugu'
b 'Bizidun batzuk marraztu ditugu'

Ikus daitekeen bezala, beheranzko irakurketa debeku da hemen (51a), baina ez ordea irakurketa existentziala (51a'), ez eta goranzkoa ere (51b).

Saia gaitzen orain *saihestu* aditzaren mendera joaten:

(52) Saihestu dugu txoriak marraztea

a 'Ez dugu enararik marraztu'

a' 'Ez dugu txoririk marraztu'/'Ez ditugu txoriak marraztu'

b # 'Ez dugu bizidunik marraztu'

Oraingo honetan, bideratu daiteke bai beheranzko irakurketa (52a) eta bai irakurketa existentziala ere (52a') (Etxebarria, 2005). Goranzko irakurketa ordea ez du euskaldunon senak onartzen (52b).

Horrela bada, *saihestu* bezalako predikatuek, bere baiezko eran nola edo halako bateragarritasun maila erakusten dute *inongo* osagaiarekin (50), eta beheranzko irakurketa garbi eta gramatikalak sortzen dituzte mugatzaile plurala bezalako determinatzaileekin ere (52). Azpimarratu beharrekoa da *lortu* bezalako beste predikatuek ez daukatela beheranzko irakurketa sortzerik, ez partitiboarekin batera, ezta mugatzailea eta plural-markarekin batera ere.

2.2.2. Galderak

Bestelako hizkuntzetan bezala (Lahiri, 1998), galderek ondo zilegitzen dute *inongo* beti ere beheranzko egia-aurreuposizioa tartean dagoelarik. Ortiz de Urbinak (2003: §4.5.4) ere deskribatua du hau euskararako:

(53) Marraztu al duzue inongo txoririk ere?

'Marraztu al duzue enararik?'

2.2.3. Mendeko *perpau*s modifikatzaileak

Lahirik (1998) aditzera eman du mendeko sorta handi batek polaritate negati-boko osagai bat zilegitzen duela hindieraz. Oso azpimarratzekoa da berak emandako *perpau*s gehienen euskal baliokideek antzera jokatzen dutela gure hizkuntzan.

Hasiera-hasieratik esan behar da Lahirik emandako mendeko hauek, eta bai Ortiz de Urbinak hizpide hartutako gehienek ere modifikatzaile funtzioa betetzen dutela, eta beraz oso urrun ibiliko garea mendekoak aukeratzen dituzten predika-tuen sintaxi esparrutik (→§2.2.1), bai eta dagokien esparru lexikotik ere. Kontuan har bedi oraingo honetan *perpau*s nagusiak ez duela inongo eraginik gure azter-gaian, eta batez ere mendekoek daramaten konplementatzaileari erreparatuko diogula, beheranzko egia-aurreuposizioaren ikur gisa.

1) Baldintzapenek honela jokatzen dute:

(54) Inongo txoririk marraztuko bagenu,...

'Enararik marraztuko bagenu'

2) Denbora adierazten duten mendeko batzuek ere, antza, berdin joka lezakete:

(55) Inongo txoririk marraztu aurretik,...

‘Enararik marraztu aurretik,...

3) Aipagarriak dira era berean, helburuzkoak eta moduzkoak:

(56) Inongo txoria marrazteko, pazientzia handia behar da

Esan beharrekoa da honelako perpaus modifikatzaile guztietan irakurketa unibertsala edo zehazkiago, irakurketa unibertsalaren inguruko modaltasun mota bat lortzen bide dela, eta horrexek zilegitzen duela *inongo* (57), perpaus nagusietan ez bezala (58).

(57) Inongo txoririk marraztu aurretik,...

‘Enarak marraztu aurretik’

(58) Txoriak marraztu dituzu

‘Enarak marraztu dituzu’

4) Aurrekoen joskera esparrutik urrun samar bide daude izenaren modifikatzaile gisa jokatzeko duten perpaus erlatiboak:

(59) Inongo txoririk ere marraztu duenak, pozik egon behar du

‘Enararik marraztu duenak, pozik egon behar du’

2.2.4. *Perpaus barruko beste osagai batzuk*

Teori hizkuntzalaritzan esan ohi da aztertzeraz goazen osagai hauek predikatu modura jokatzeko dutela, baina argumentu jakin bati (subjektu bati) eragin beharrean, perpaus osoari eragiten diotela. Horrela teori hausnarketa sakonetan hasi gabe, esan dezakegu baditugula perpaus mailako modifikatzaileak, beren perpausen barruan *inongo* zilegitzen dutenak.

(60) Nekez/gutxitan/ozta-ozta marrazten dugu inongo txoririk ere

Berehala ikus daiteke (60)koaren onargarritasuna, bestelako osagai batzuek (61) ematen duten ondorio eskasaren aldean:

(61) *Maiz marrazten dugu inongo txoririk ere

Izan ere, polaritatean beti gertatzen den bezala, ez gara sintaxi hutsaz ari, *nekez* bezalakoek lexiko edo semantika mailan izan dezaketen zenbatze edo modaltasun ezaugarriez baizik.

Ondorioak

Polaritate negatiboko osagaiak, ezezko perpausetan baizik ezin ager daitezkeen osagai modura deskribatu izan dira hasiera batean behintzat. Deitura hori hartu du hasieratik ere *inongo* + izena + partitibo marka/determinatzaile eza + (*ere*) euskal egiturak.

Euskal bibliografiak zorrotzago jokatze aldera egin du gero, egitura hau ager daitekeen baiezeko testuinguruen sorta baten berri eman duenean. Sorta hau era lauso batean deskribatu da, bai sintaxiaren ikuspegitik, bai eta semantikatzat jo litekeen esparruaren ikuspegitik ere.

Lan honek, lehenik, birformulatu egin du polaritate negatiboko testuinguruetan deskribatu izan den «beheranzko auresuposizioa» delakoa, beheranzko hiponimiako egia-auresuposizio gisa: *inongo txoririk ere* azaldu daiteke baldin eta testuinguru horretan *txori* izenaren hiponimoetara ere iristen bada perpausean ematen den baieztapena: *·Ez dugu inongo txoririk ere marraztu → Ez dugu inongo enararik ere marraztu.*

Bigarrenik, hiponimia-auresuposizio hau ondo gauzatzen da perpausean bertan ezezeko osagai ageria dagoenean (*ez, gabe, aurka...*), baina baita perpaus horrek predikatu jakin batzuen argumentu funtzioa betetzen duenean: **Lortu dugu inongo txoririk ere marraztea / Saihestu dugu inongo txoririk ere marraztea.* Lan honek agerian utzi du *lortu* bezalako aditzek ez dutela hain erraz hartzen beheranzko irakurketa (*Lortu dugu txori batzuk marraztea ==> # Lortu dugu enara batzuk marraztea*). *Saihestu* bezalako aditzek aldiz beheranzko hiponimia-auresuposizioa sortzen dute edozein testuingurutan, eta *inongo* zilegitzen dute beti ere. Edozein testuinguru diogunean, aztergai dugun perpausaren egia- zein gezur-testuinguruez ari gara: *Saihestu dugu inongo txoririk ere marraztea → Ez dugu enararik marraztu / Ez dugu saihestu inongo txoririk ere marraztea → Enarak marraztu ditugu (enararik bazegoen).* Esparru honetan bada, lan honek ekarpen garrantzitsua egin du mendeko perpausen sintaxian aztertu ohi diren auresuposizio sorta polaritatearekin nolabait uztartuz.

Bibliografiak deskribatuak zituen bestelako sintaxi esparruak ere ondo ulertzen dira hiponimia-auresuposizio honen argitan.

Bibliografia

- Altzibar, X. eta Odriozola, J. C. (2013): «Kolokazioak: OEH eta egungo erabilera», *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*, EHUko Argitalpen Zerbitzua, 23-40 [argitara bidean].
- Cuartero, J. M. (2002): *Conectores y conexión aditiva*, Gredos, Madril.
- Demonte, V. (1982): *La subordinación sustantiva*, Cátedra, Madril.
- Etxeberria, U. (2005): *Quantification and Domain Restriction in Basque*, [doktorego-tesia], Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Etxeberria, U. eta Irurtzun, A. (2011): *The emergence of scalar meanings: association with focus of the additive particle ere in Basque*, <<http://filcat.uab.cat/clt/cgg22/Abstracts/Etxeberria%20&%20Irurtzun.pdf>>.
- Euskaltzaindia (1999): EGLU-V, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Fasold, R. eta Connor-Linton, J. (2006): *Hizkuntza eta hizkuntzalaritza*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 2010.
- Goenaga, P. (1985): «Complementación y nominalización en euskara», *Anuario del Seminario de Filología Vasca 'Julio de Urquijo'*, **19(2)**, 493-570.
- González, R. (2009): *La polaridad positiva en español*, [doktorego-tesia], Universidad Complutense de Madrid.

- Karttunen, L. (1971b): «Implicative Verbs», *Language*, **47(2)**, 340-351.
- , (1971g): «Subjunctive Conditionals and Polarity Reversals», *Language*, **4(2)**, 279-298.
- , (1973): «Presuppositions of Compound Sentences», *Linguistic Inquiry*, **4(2)**, 169-193.
- , (1978): «Some Observations on Factivity», *Papers in Linguistics*, **4(1)**, 55-68.
- Krifka, M. (1999): «Additive Particle Under Stress», *Proceedings of SALT 8*, CLC Publications, Ithaca, NY, 111-128.
- Laka, I. (1990): *On the nature of functional categories and projections*, Philosophical Dissertation, Massachusetts Institute of Technology.
- Ladusaw, W. A. (1979): *Polarity Sentivity as inherent scope relations*, Philosophical Dissertation, The University of Texas at Austin.
- Lahiri, U. (1998): «Focus and negative polarity in Hindi», *Natural Language Semantics*, **6**, Kluwer Academic Publishers. Printed in the Netherlands, 57-123.
- Odriozola, J. C. (1993): *Axularren kasu-markadun adizkiak*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- , (2004): «Estructuras con *gabe* 'sin' en vasco», in E. Pérez; I. Zabala eta L. Gràcia (arg.), *Las fronteras de la composición en lenguas románicas y en vasco*, Universidad de Deusto, Bilbao, 355-393.
- , (2012): *Adjektibo adberbialak*, <<http://www.ehu.es/seg/morf/5/7/2/3/2>>.
- , (2013): «*Gauza ziurra eta gezur hutsa*: euskal izenondo adberbialen kolokazioak», in *Enrike Knörrentzako omenaldia* [argitara bidean], Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Odriozola, J. C. eta Altzibar, X. (2013): «Basque Complex Predicates and Grammatical Change», *Fontes Linguae Vasconum*, **XLV (116)**, 171-189.
- Odriozola, J. C. eta Ondarra, A. (2010): «Conectores, gramaticalización e polaridade: o caso de *ere* 'tamén' na lingua vasca», *Cadernos de Fraseoloxía Galega*, **12**, 175-194.
- eta —————, (2012): «(Changing) Polarity in Connectors», *Euskera*, **57(3)**, 681-703.
- Ondarra, A. (2006): «*También* del castellano y *ere* del vasco (I)», *Interlingüística*, **17**, 788-796.
- , (2007a): «*También* del castellano y *ere* del vasco (II)», *Interlingüística*, **18**, 846-855.
- , (2007b): «*Ere* eta aurreuposizioa (hizkuntzalaritzako) testu teknikoetan», *Espezialitateko Hizkerak eta Terminologia II. Euskara estandarra eta espezialitate hizkerak*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 199-20.
- Rijk, R. P. de (1972): «Partitive Assignment in Basque», *Anuario del Seminario de Filología Vasca 'Julio de Urquijo'*, **6**, 130-173.
- , (1996). «On the origin of the partitive determiner», *Anuario del Seminario de Filología Vasca 'Julio de Urquijo'*, **30 (1)**, 145-158.

